

ORAIN ETA HEMEN: CERRAJERAKO ETXEBIZITZAK



# Arrasate

P R E S S

2001.eko  
urtarrilaren 16a  
626. zenb.



## Asturianak Arrasaten

Euskal arrazaz gain bestelako behiak ere hazten dira hemen



**ZURE ZENTRU BERRIA ARRASATEN**  
 Otolora lizentziatua, 18 behea  
 ☎ 943 71 27 93

GAES zentru berria, entzumen arazoetan bereiztua  
 Deba Goienari zerbitzu osoa emateko.



DOHAINEKO txkeo elektronikoa eta  
 opari bitxi bat gugana inguratzen diren guztientzat.


**GAES**

**ENTZUMEN ZENTRUA**



R.P.S. Nº164/99

- |  |   |   |   |   |
|--|---|---|---|---|
| <br>GIPUZKOAN:<br>ENTZUMEN ZENTRUA | <b>EIBAR</b><br>Bidebarrieta, 2<br>☎ 943 20 61 14 | <b>ERRETERIA</b><br>Esmalteria Plaza, 7<br>☎ 943 51 48 11 | <b>DONOSTIA</b><br>San Martin, 21<br>☎ 943 42 99 58 | <b>ARRASATE</b><br>Otolora Lizentziatua, 18<br>☎ 943 71 27 93 |
|--|---|---|---|---|



**MARGA**  
 jantzidenda

Iturriotz, 21 • ARRASATE • Tel.: 943 71 17 40  
 San Pedro 20 • BERGARA • Tel.: 943 76 05 37

**% 100 Kalitatea**  
**% 50 Beherapenak**

DENBORALDIKO KALITATEZKO ARROPA  
 MODA GAZTEA  
 NEURRI BEREZIAK - 40/54

*Zure estiloko arropa jantzi eta gazte sentituko zara!*

*Guzti hau zure zain dago. Azkar ibili!*



## urteurrenak

### Geroari begira

■ 48. zenb.

(1990-1-19)

Eskola Politeknikoak elektronika laborategi berriak ireki zituen urtarrean. Eskolak 100 milioiko inbertsioa egin zuen, eta orduan Lan Kide Aurrezkoa zenarekin zuen 500 milioiko aurrekontutik ordaindu zuen. Inaugurazioan izan ziren, besteak beste, Jose Antonio Garrido Iberdueroko lehendakaria, Jose Luis Madinagoitia Eskolako, eta Iñaki Lakuntza, garai hartan eskolako zuzendaria.

### Aukea sariak

■ 48. zenb.

(1990-1-19)



Urtarrilaren 6an AUKEA sariak banatu ziren Musakolako kiroldegian. Taldeen artean Errugbikoak jaso

zuen saria, eta kirolari onenen sariak Jose Antonio Gayk eta Ignacio Maizbidek irabazi zituzten.

### Geroari begira

■ 48. zenb.

(1990-1-19)

Udal aurrekontuak prestatzen ibili ziren egun haietan udal ordezkariak. 2.000 milioi pezetako muga gaindituko zuela aurrez ikusi zen. Urtarrilaren 23an Hazienda batzordearen aurrean aurkeztekotan geratu ziren. Kapitulu garrantzitsuena seigarrena izango zela ere jakin zen. Izan ere, inbertsiorik handienak hortxe jasotzen ziren: Iturripeko kiroldegia, Ferixalekuko pilotalekua, udaletxearen berritze lanak, Oxinako zubiko eta Santa Barbarako parkeko lanak, besteak beste.

### Zubi arriskutsua

■ 48. zenb.

(1990-1-19)



Musakolako zubi estua konpontzen hasi ziren. Oso estua zela-eta, arriskutsua ei zen handik pasatzea.

## besteek esana



Lastertasun Handiko Trena Euskal Herria punta batetik bestera gurutzatuko lukeen trena da eta Euskal Herriak behar duen trena hurbiltasuna trena da. (...). Arrasatetik pasatuko litzateke eta bere lurralde barruan ikusi ere ez litzateke egingo lur azpitik joango litzatekeelako. Lehen Kobate harrobian agertzen zen, baina Lezetxikiko gunea hondatu behar zuelako 300 metro hurrungo pasatuko da eta Aramaion agertu. Gainera ixurketen arazoa ekarriko liguke, hau da, lur eta harri asko mugitu beharra dago eta horiek non utzi oraindik erabaki barik dago».

Xabier Zubizarreta

Alkatearekin Berbetan (GOITB)

(2001-01-17)



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Fax: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. Zuzendaria: Manjro Deogracias. Kazetariak: Ubane Madera eta Leire Kortaberria. Publizitatea: Nerea Zallo, Arantza Lagumilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). Zuzentzailea: Sergio Azkarate. Administrazioa: Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) Diseinua: Maddi Truxuelo. Asteburuetako berriemailea: Lorea Agiriano. Banaketa arduraduna: Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.500. Lege-Gordailua: 1124/88. ISSN: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. Inprimategia: Geru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Truxuelo.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## aurkibidea

- Lehen begiratua . . . . . 3
- Txutxumutxuak . . . . . 9/13
- Kirolak jokoan. . . . . 20/21
- Asteko hitzorduak . . . . . 4
- Asturiaskoak bai, baina hemenez hazitakoak . . 14/15
- Eskola-kirola . . . . . 22
- Inkesta . . . . . 5
- Gure enpresak . . . . . 17
- Astearren errepasoa . . . . . 6
- Zaldibar areto futbolak . . . . . 18/19
- Kulturaren txokoa . . . . . 23/24
- Orain eta hemen . . . . . 7/8
- Uhinetan barrena . . . . . 25
- Foto zaharra . . . . . 26





## ZERBITZUAK

### Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Iguatorialdea . . . . . 943 71 26 91  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
 (emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak . . . . . 112  
 Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
 DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
 Astelehenetik  
 larunbatera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
 asteburu eta  
 jai egunetan . . . . . egun osoa  
 Arrasate  
 Astelehenetik  
 ostiralera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
 Larunbateran . . . . . 09:00etatik 17:00etara  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
 • Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
 • Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
 • Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11  
 Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
 Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
 Argindarra (iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
 Gasa . . . . . 900 40 05 23  
 . . . . . 943 79 78 44  
 . . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
 PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburategia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

<b>Larunbata</b>	<b>Igandea</b>
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

<b>Larunbata</b>	<b>Igandea</b>
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
<b>Igandea</b>	<b>12:30 (gaztelaniaz)</b>
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

<b>Larunbata</b>	<b>Igandea</b>
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

<b>Larunbata</b>	<b>Igandea</b>
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

<b>Larunbata</b>	<b>Igandea</b>
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

<b>Jalegun bezpera eta larunbata</b>	<b>Igandea</b>
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## kartel lehiaketa

Inauterietako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du udalak. 50x70 zentimetroko kartel bertikalak egin beharko dira. Teknika librean izango da, baina 2001 Haratuzteak

Arrasate esaldia derrigor agertu beharko da. Otsailaren 9a baino lehen bidali behar dira udaletxera. Irabazleak 60.000 pezeta jasoko ditu.

## presoen aldeko dantza ekitaldia

Arrasateko Gazte Ekimenak dantza ekitaldia antolatu du euskal presoen Euskal Herri-ratzea eskatzeko. Zapatuan izango da, 18:00etan. Portaloian hasi eta plazaraino joango dira, han dantza saio nagusia egiteko.



## mus txapelketa

Arrasateko Alkartetxeko XII. Mus Txapelketa antolatu du EAK. Txapelketa urtarrilaren 26an hasiko da, 22:00etan.

Parte jartzeko, deitu 943 71 27 88 telefonora edo joan Alkartetxera, Pablo Uranga kalean.

## martxoaren 8ko egitaraua

Arrasateko Emakume Kontseiluak batzarra egingo du urtarrilaren 24an, udaletxean, 18:00etan. Martxoaren 8ko egitaraua

osatuko da. Proposamenak dituen edonor gonbidatuta dago.

## RIPen kontzerturako txartelak

RIP, La Polla eta beste talde batzuen kontzertua izango da Hernanin otsailaren 17an.

Sarrerak Irati tabernan erosi ahal izango dira, 2.000 pezetan.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Egubakoitza, 19

• Amezua, Santa Marina

### Zapatua, 20

• Zabala, Zarugalde

### Domeka, 21

• Ruiz, Maalako Errabala

### Astelehena, 22

• Morales, San Andres

### Martitzena, 23

• Azkoaga, Ferrerías

### Eguaztena, 24

• Azkoaga, Iturriotz

### Eguena, 25

• Korkuera, Musakola

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



P A R K I N A E T A T E R R A Z A

# BASTER-ALDE

J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAleta

Tel.: 943 79 24 58



# Behi-okela gutxiago jaten duzu?

Oraintsu hasi dira Euskal Herriko okela aztertzen, 'behi zoroak' gaitza dela eta



**Tomas Silva**  
(77 urte)  
Erretiratua

Bai, horixe! Lehen, txuleta ederrak jaten nituen, baina orain, arraina eta untxia!



**Izaskun Ezpeleta**  
(34 urte)  
Langilea

Lehen beste. Astean birritan jaten dugu okela. Polemika horri ez diot kasu handirik egiten.



**Jose Garro**  
(66 urte)  
Erretiratua

Orain, emazteak ez du okelarik erosten, baina nik, behintzat, trankil jango nuke. Kanpoan bazkaltzen dudanean eskatzen dut okela.



**Pilar Menallo**  
(43 urte)  
Etxekoandrea

Lehendik ere ez zitzaidan gustatzen, eta orain, eztabaida honekin, geroago eta gutxiago erosten dut.



**Mikel Jauregi**  
(19 urte)  
Ikaslea

Zer edo zer gutxiago, bai, baina ez diogu jateari utzi. Behi zoroen iskanbila etorri den bezala joango da.



**Manuel Fernandez**  
(50 urte)  
Langilea

Bai; behi-okelarik ez erostea erabaki dugu etxean.



**Aitziber Egiguren**  
(28 urte)  
Langabea

Oraindik ez dago argi nondik datorren arazoa; horregatik, nik berdin-berdin jaten jarraitzen dut.



**Maite Gonzalez**  
(32 urte)  
Langabea

Beti harategi berean erosten dut eta konfiantza dut. Horregatik, ez diot utzi behi-okela jateari.

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia  
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

**Plus Ultra**  
taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



## USTEAK USTE

### Hitzak eta errespetua

**J**oan den astean Paco Garcia zinegotzi sozialistaren autoa erre zuten, eta bere alderdiak aurkeztutako mozioak ika-mika asko eragin zituen astelehenean egin zen osoko bilkura berezian. Ekintza bera salagarria da. Baina, udaletxeko alderdi guztiek ez zuten modu berean pentsatu. Ez, ordea, ekintza salagarria ez delako, baizik eta aurkeztutako idatzian erabiltzen zen hizkuntza ez zelako egokiena. Agian, elkarrizketa bultzatzeko gure hizkuntza neurtu beharko genuke eta "tolerante-agoak" izan. Ekintza bat gaizki baldin badago, gaizki dago eta onartu egin behar dugu. Horri bestelako iritzi politikoak gehitzen badizkiogu, ez dugu inoiz aurrera egingo gure artean.

Batak bestearena ez du onartzen, eta besteak harena ere ez, eta horrela urteak eman ditzakegu (dagoeneko, eman ditugu), eta gure artean bizi dugun egoerak irtenbiderik ez duela dirudi.

Denon artean egin behar dugu elkari ulertzeko ahalmena, errespetuagatik bada ere.

Marijo Deogracias

## astea bi hitzetan

### ■ Anbulatorioko lanak

Anbulatorioko pediatria zerbitzua egokitzeko lanak aurrera doaz: sarrera-atea aurrealdean izango du hemendik aurrera eta bulegoak eta ikuskatze zerbitzuak hirugarren solairura eramán dira. Horrez gain, orain arte sarrera eta egongela moduan erabilitako gunean kontsulta berri bat ere egingo dute; hortaz, bost kontsulta izango dira hemendik aurrera.

Edozelan ere, lanak urtarri hasiera aldean bukatzeko ziren, baina uste baino gehiago luzatu dira.

### ■ Ingurumena babesteko

Debagoieneko Mankomunitateak ingurumenaren inguruko zenbait bideo egingo ditu. Mankomunitatearen asmoa da birziklapena bultzatzea, eta horretarako telebistarako iragarkiak egingo

ditu. Iragarki horien protagonistak Alvaro Lopez aktore ezaguna eta Aitor Lopez Rekarte izan dira, eta K-2000 Donostiako ekoiztetxeak grabatu du. Ondoren, bailarako eskola guztietan banatuko da bideoa.

### ■ Valdemorotik Murtziara

Enrike Letona preso mondragoetarra Valdemoroko kartzelara eramán zuten gestio batzuk egiteko. Eta dagoeneko berriro eramán dute Murtziara.

Pasa den urrian 13 urte bete zituen kartzelan Enrike Letonak; zigorraren hiru laurdenak beteta ditu, hortaz. Hori dela eta, berriro ere Murtziara bueltatu izana salatu zuten Senideak elkarteak.

### ■ Istripua Musakolan

Volkswagen Polo batek eta Ford Fiesta batek elkar jo zuten astelehenean Musako-

lan. Ondorioz, paseatzen zebiltzan bi lagunengainera joan zen Volkswagena. Bi lagun horiek eta Volkswageneko gidaria eskualde ospitalera eramán zituzten; hori bai, badi-rudi ez zutela ezer larririk.

### ■ Gripearen txerto arrakastatsua

Urtero moduan, eta inguruko bestelako herrietan bezala, gripearen aurkako txerto Mondragoen ere eman da azken hilabeteotan. Eta emaitzak esku artean izanda, oso balorazio positiboa egin dute anbulatorioko ordezkariak. Iazko kanpainarekin alderatuz, igo egin da txertoa jaso duten gaixoen kopurua. Helburua zen herritarren %62 txertatzea, eta %67'34k jaso dute txertoa.

### Datuak zenbakitan

- 65 urtetik gora, 2.842
- Kronikoak, 784
- Guztira, 3.626



### ■ Elkarlanerako hitzarmena

Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta ARKOk elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten pasa den egue-nean. Ekitaldian Mikel Irizar Goienako zuzendari orokorra, Aitor Orobengoa ARKoko lehendakaria eta Estepan Plazaola Goienako lehendakaria izan ziren.

Goiena Komunikazio Zerbitzuen egoitzan sinatu zuten hitzarmena.

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

## Jili Jili

Martxa eta estilo  
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

## MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



# Paco Garciaren autoaren erreketeta salatu zuen udalbatzarrak

“Kaleko terroristek 14:30ak inguruan egin zuten atentatua, egun argiz. Nahiz eta gertaera ikusi zuten lekukoak egon (euren esanetan hiru kaputxadun izan ziren), inor ez dago testifikatzeko prest, erre-presaliak jasotzeko herritarrek duten beldurrak eraginda”.

Horixe dio, besteak beste, astelehenean PSE-EEK Arrasateko Udalean aurkeztu zuen mozioak.

Gogoratuko duzueenez, pasa den egunean Paco Garcia zinegotzi sozialistaren autoa kiskali zuten hiru kaputxadunek. San Andres auzoan gertatu zen hori, 14:40an.

Horren aurrean, besteak beste, osoko bilkura berezia deitu zuen udalbatzarrak astelehenean, eta hantxe aurkeztu eta onartu zen PSE-EEren



Paco Garciaren autoa erabat kiskalita geratu zen.

mozioa. EHren kontrako botoekin eta beste alderdi guztien aldeko botoekin onartu zen.

## EZTABAIDA

Mozioak bost puntu eta sarrera bat ditu. Hain justu, sarrera horretan esaten denak piztu zuen eztabaida politikarien artean. Puntuz puntu bozkatzeko eskaera ere egin zuten,

eta baita esaldi bat zuzendutako ere. Azkenean, bere osotasunean bozkatu eta, esan bezala, onartu egin zen. Paco Garcia beste edozein herritarren modukoa dela dio mozioak, “desberdintasun bakarra da bera sozialista dela eta askatasunaren, bakearen, tolerantziaren eta elkarbizitzaren defendatzaile sutsua. Horiek

dira bere bekatuak?”

Alderdi politikoei, berriz, eskatzen die PSE-EEren salaketarekin bat-egitea eta elkartasuna adieraztea; hori egin ezean, “terroristen aldean daudela interpreta daiteke”.

## BOST PUNTU

Sarrera horren ondoren, eraso salatzea eskatzen dute, Paco Garcia zinegotziari elkartasuna adieraztea, eta, beharrezkoa bada, laguntza ekonomikoa ematea. Horrez gain, norberaren ideiak askatasun osoz eta inolako erasorik jasan barik adierazteko eskubidea ere exigitu zuten. Bukatzeko, udalari eskatu zioten eguneak modukoak berriro ez gertatzeko neurriak har ditzala, eta epaileei eta polizia laguntza ematea, eguneko ekintza egin zutenak atxilotzeko.

## Atxiloketa

Eguazten goizaldean Egoitz Garrido izeneko 20 urteko gaztea atxilotu zuen Ertzaintzak Mondragoen. Atxilotua izatez bilbotarra da, baina Mondragoen ari da ikasten.

Iaz Areatzan banketxe baten erreketan parte hartu izana egotzen dio polizia eta talde armatuari

laguntza izana leporatzen dio. Ertzaidegiko komisaldegitik Madrilgo Auzitegi Nazionalera eraman zuten han deklaratzeko.

## PROTESTA

Atxiloketa horregatik protesta egiteko, manifestazioa egin zen Mondragoen egun berean.

## “Denontzat”

Etxebizitzaren arazoa eta eztabaida herritarren artean zabaltea eta horren baitan mugimendu soziala sortzea nahi du “Denontzat” izeneko taldeak. Horretarako, batzarra antolatu zuen eguaztenean, udal-etxeko areto nagusian.

Era berean, taldeko kide Sagra Lopezek adierazi digunez, zenbait eskaera egingo

dira taldeak udalari. Besteak beste: orain egiten ari diren hiri antolamenduaren egitiman herritarren parte hartze zuzena eta; etxebizitzaren behar erreala ikusteko azterketa egitea; gazteek etxea lortzeko plan berezi bat bideratzea; eta udalaren aurrekontuaren %5 etxebizitzaren arazoarendako bideratzea.

**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**• ARTEA •**

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK  
Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**Hilbera  
kafetegia**

Uribarri Etorbidea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 22 70



## Aparkaleku berriak

Aste honetan hasi dira egiten Otalora kaleko aparkalekuak. Monterronen hasi eta Muxibarko plazaraino egingo dira; hortaz, hemendik eta lanak bukatu arte, ezin izango da hantxe aparkatu. Guztira, 40 bat aparkaleku egingo dira eta lanok egiteko pare bat hilabete izango dituzte.

## Gernika Zumardiarekin bueltaka

Hirugarren zigor-espediente ireki dio udalak Brues Eraikuntzak enpresari, Gernika Zumardiko lanak dagokionean ez bukatzearen. Dagoeneko, ia lau milioi pezeta ordaindu ditu enpresak isunetan. Udalak ezarritako bigarren luzapenaren arabera, abenduaren 18rako bukatuta egon behar ziren.

Lanok ez bukatzeaz gain, udaleko teknikariek lanei egindako bisitan ikusi zuten obrek ez zutela aurrera egiten, eta utzita zeudela. Gainera, gutxieneko segurtasun neurriak ez zari barik zeuden.

Horren aurrean, udalak 15 egun eman dizkio enpresari atzerapenaren inguruan dituen alegazioak edo arrazoiak aurkezteko; eta gainera, beharrezko segurtasun neurriak hartzeko ere eskatu dio.

# Badatoz babes ofizialeko etxeak

Arrasateko Udalak onartu egin du Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmen bat egitea, Cerrajerako lurretan babes ofizialeko 308 etxebizitza egin daitezzen. Osoko bilkura berezia deitu zuen horretarako pasa den astelehenean.

Guztira, bost etxe multzo egingo dira: Deba errekatik hurbilen dauden lehen bi etxe multzoetan 200 etxebizitza eraikiko dituzte, eta atzeko ilarrako beste hiru etxe multzoetan, ostera, 36na etxebizitza.

Etxebizitzak eraikiko diren guneko lurrak Arrasateko Udalarenak dira, eta etxebizitzak egiten uztearren, Eusko Jaurlaritzak lau etxe multzotako behe-barru guztiak emango dizkio udalari.

### SALDU EDO ALOKATU

Eraikiko diren etxe gehienak saldu egingo dira, 11 eta 12 milioi pezetaren truke. Mondragoen erroldatutakoek bakarrik erosi ahal izango dute etxea han.



Errekatik gertuen dagoen etxe multzo bateko 100 etxebizitza, berriz, errentan hartzeko izango dira. 20 mila pezeta inguru ordaindu behariko dira errentan.

Berritasunik handiena, baina, jabegoari dagokio. 75 urte barru, saltzen diren etxebizitzak Eusko Jaurlaritzaren eskuetara itzuliko dira. Epe horren barruan, badago jabegoa aldatzeko aukerarik, baina, esan bezala, 75 urte igaro eta gero, etxe guztiak Eusko Jaurlaritzarenak izango dira berriro.

### DATORREN URTEAN

Asteleheneko erabakiaren ondoren, hurrengo urratsa hitzarmena bera sinatzea izango da. Aurten, mota horretako burokrazia-lanak egingo dira; beraz, datorren urtean hasiko dira etxeak egiten eta agintaldi hau bukatu orduko amaituta egotea espero dute.

Proiektu hau Etxebidek kudeatuko du eta Arrasateko Udala arduratuko da ondorengo urbanizazio lanez.

## “Ez dut ezagutzen ETA izeneko erakunderik”

Josu Arkauz, mondragoetarrak Auzitegi Nazionalen deklaratu zuen martitzenean. 1990ean Zornotzako Guardia Zibilaren kuartelari bota zioten granada eman izana leporatzen diote.

Berak ukatu egin zuen ETako kide izana, ez “dudalako ezagutzen ETA izeneko

erakunde armaturik”. Era berean, ekintza horretan parte hartu izana ukatu zuen. Fiskalak 13 urteko kartzela zigorra eskatzen du berarendako.


Edozelan ere, epaiketa bertan behera geratu zen eta datorren otsailaren 9an errepikatuko da; izan ere, Guardia Zibileko peritua bat ez zen agertu.



**BASATI**  
**TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
TLF. 943 711762

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia  
ARETXABAETA  
Industrialdea 1-0-4  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941





## TXINPERTA, ETXERAKO

Mikel Altuna duzue hemen, Santamase-tako txerriaren, Txinpertaren, irabazlea, 5.116 zenbakidun txartelari esker. Baina, Juan Pablo Inda eta Juan Luis Arkauz lagunekin batera erosi zuen, eta ospatzeko, afaria egingo dute.



# SANTAMASAK 2000

ARRASATEKO BASERRIEN ANTZINAKO TRESNEN ERAKUSKETA (I.ALDIA)

SANTAMAS KOMISIÑUen partez, eskerrik beruenak hemen aitaketan dien baserrixei, erakusketie egiteko laguntza haundixe emun doskuelako:

- |                        |                      |                     |                        |
|------------------------|----------------------|---------------------|------------------------|
| • <i>Arbe</i>          | • <i>Artia</i>       | • <i>Otamendi</i>   | • <i>Salturri</i>      |
| • <i>Altzibar</i>      | • <i>Iturrixa</i>    | • <i>Intxausti</i>  | • <i>Altxaurti</i>     |
| • <i>Zabaleta</i>      | • <i>Urin</i>        | • <i>Etxaburu</i>   | • <i>Ugaldegain</i>    |
| • <i>Osiña</i>         | • <i>Bioso</i>       | • <i>Muxibar</i>    | • <i>Txosa</i>         |
| • <i>Aranguren (2)</i> | • <i>Uribarren</i>   | • <i>gainekoa</i>   | • <i>Etxebarri</i>     |
| • <i>Garratz</i>       | • <i>Sakristakua</i> | • <i>Kabuena</i>    | • <i>Etxaldebarri</i>  |
| • <i>Barrenazar</i>    | • <i>Andra</i>       | • <i>Bengoa</i>     | • <i>Antzarrigartu</i> |
| • <i>Elorrixa</i>      | • <i>Mari Zuri</i>   | • <i>Larrinetxe</i> | • <i>Gosamendi</i>     |



## JOAN DEN MENDEKOAK, BAINA...


Joan den mendean ezkondu ziren arren, hementxe ditugu Angel Maria eta Maria Jesus. Urriaren 14an ezkondu ziren, San Frantziskon, eta Costa Ricara joan ziren ezkon-bidaian. Zorionak eta urte askotarako!



## YOGA, ORAIN ETA HEMEN!

### "AQUI y AHORA"


ESTRES- RELAJACIÓN / AUTOESTIMA / YOGA / PSICOTERAPIA / EL PODER DEL TACTO / MASAJE / OLVERO Y CONSCIENCIA / TANTRA: CULTO DE LO FEMENINO.



Hara Arrasate Yoga Elkarteak kaleratu berri duen eskuliburu. Bertan 20 urteotako ikasgairik garrantzitsuenak jasotzen dira: erlaxazioa, autoestimua, yoga, psikoterapia eta beste hainbat gai.

*José Luis Armendia*

## TITIRITEROAK ARETXABALETAN



Negu Kulturalari amaiera alai emateko, Sebastopoleko Titiriteroak izan ziren zapatuan Aretxabaletan, eta bailarako ume eta aita-ama asko gerturatu ziren kiroldegira. Umeak izutzen saiatu zen Mamutxo, baina ume horiek ez ziren erraz izutzen diren horietakoak.

Likidaziok  
arropetan

2x1



Zarugalde, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 49 72

Adi!

solik urtarriaren 31ra arte




## URTEBERRI ON, KIKIRIKIREN PARTETIK!

2000-12-25, Grey glaziarra. Eguberria ospatzeko xanpaina edan eta apustua egín ondoren, hemen duzue Kikiriki mondragoetarra, lagun, senide eta euskaltzale guztioi agurra bidali eta urte berria zoriontzeko.



## Multieskaintzak

# aurki itzazu!



**MONTURAK  
BONARDI**  
**4.150** (24,94 €)  
PTA.

**MONTURAK + KRISTALAK\***  
**60 URTETIK AURRERA**  
**8.900** (53,49 €)  
PTA.  
-TIK AURRERA

**MONTURAK + KRISTALAK\***  
**G. TABACCHI**  
**13.900** (83,54 €)  
PTA.  
-TIK AURRERA

**LENTE\* MULTIFOKALAK**  
**19.500** (117,20 €)  
PTA.  
-TIK AURRERA

Eskaintza honek 01/02/28 arteko balioa du. \*Lente zuriendako eskaintza ± 4 ESF. ± 2 CIL.

# MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

**BERGARA  
ARRASATE  
ORDIZIA**



# Edertasunaren Gida

**CARMEN**

**Ile apaindegia Solariuma**

Ferrerias, 50  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 03 63

*Jose Antonio*

GIZONEZKOEN  
ILE APAINDEGIA



Otalora lizentziatua, 22-behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 42 10

**SUSi**

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea  
Tel.: 943 79 50 27

**ILEA**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

*Lurrindegia* *perfumeria*

**ZARRAOA**

Kanpandorpea, 4  
Tel.: 943 79 12 19

- ▲ Larruzko artikuluak
- ▲ Bisuteria
- ▲ Opariak

*Aholkularitza  
estetika eta  
makilajea.*

LANCASTER GUERLAIN Elizabeth Arden

**JADE**

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Estetika zentroa

**LAURA**

- Depilazio elektrikoa (blend).
- Depilazio argizari hotzaz eta beroaz.
- Azala garbitzea.
- Aurpegirako tratamenduak.
- Masajeak.
- Makilajea.
- Solariuma dutzarekin.

Uherkape, 2 - E1 ezk.  
Tel.: 943 79 22 88

*Lore*



Olarte, 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BOTHERM VALMONT

*MZ*

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

Zure zerbitzuak iragarri  
nahi izanez gero,  
deitu 943 71 23 91 telefonora






Txikien eta helduen artean, jende dezente elkartu zen joan den egubakoitzean Laubide plazan. Kontua da barraketan bidaiak doan zirela egun horretan, Ibai-Arte merkataritza elkartearen kontura, hain zuzen. Hori bai... umeendako bakarrik, e'?



## EDERRA TXANTXA!

Begiratu zelan geratu den San Frantzisko elizako garajea, inguru haietan egin diren lanen ondorioz. Orain, ez da autorik kabitzen, eta gidariak ere nekez sartzen dira garajera. Sikiera, patinetea erosi izan balute...



**weru**<sup>®</sup>  
**Ate + leihoak**



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moketak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...



# Asturiaskoak bai, baina

Duela gutxi, Garagartzan hazten dabilzan oiloen arraza baten inguruan berba egin genizuen, Oiloberri izenekoa. Orain, Euskal Herrian oso ohikoa ez den beste arraza baten berri eman-gu dizuegu, baina oraingoan, behiez ari gara. Erreportajea egiteko aukeratu ditugun behiak gorri kolorekoak dira, “zintzoak”, eta Asturiastik datoz, baina euskal zelaiaik oso gogoko dituzte: asturiar motako behiak dira.

**O**kelatarakoak dira eta, gainera, ematen duten okelaren kalitatea oso ona da. Dena dela, esan bezala, geure artean ez dira oso ezagunak; hemengo harategietan gutxitan aurkituko dugu asturiar motako behien okelarik. Gure mendi eta zelaietan, ostera, geroago eta gehiago ikusten dira; izan ere, geroago eta ganaduzale edo baserritar gehiagok jotzen du bertakoak ez diren behiak haztera.

## ZELAN?

Euskal Herritik Gipuzkoara bagatuz, eta Gipuzkoatik bailarara, Udalaitzen magalean

Aitor Murgoitio aurkituko dugu. Kabuena baserrikoa, duela 10 bat urte asturiar motako behiak hazten hasi zen: “Asturiar arrazakoak dira, baina ez dira asturiarrak; hau da, guk hazten ditugun behien “arbasoak” Asturiaskoak ziren, baina orain hemen ditugunak euskaldunak dira. Nahiz eta asturiar motakoak izan, geuk hazi ditugu, hemen, Kabuena baserrian”.

Kabuenan ez dute behi askorik, 10-12 bat. Okelatarakoak ei dira behi gorri horiek eta kalitate oneko okela ematen dute, gainera.

“Hasieran, esne-behiak izan genituen, baina aita-amak



Zapatu goizaldean txahala egin zuen Kabuenako behi batek.

nagusi egin zirenean, okelatarako behiak haztea erabaki genuen, behi mota horrek lotura estuegia eskatzen du eta.

Hasieran, hainbat behi motarekin egin genituen frogak; guk argi geneukan arraza on bat nahi genuela. Frogak egin ondoren, asturiar arrazako behiak aukeratu genituen, inolako zalantza barik; bi arrazoiengatik: ematen duten okelaren kalitatea oso-oso ona delako eta animaliak mantsoagoak direlako; txahala egiteko orduan erraztasuna dute...

Edozelan ere, bereziki, hazteko saltzen dugu behi mota hau. Probatzen duenari asko gustatzen zaio eta berriro ere jaten du. Oso ganadu ona da eta hemengo baserri-ara oso ondo egokitzen da”.

Dena dela, asturiar arrazako behien okelak arazoak ditu Eusko Labelaren barruan sartzeko: “Koipe kopuruagatik ez dute onartzen. Gureak





# men hazitakoak



go ganaduzale edo marka bat baino gehiago haserretu egin-go litzateke, eta horrexegatik, jeneralean, ez da ordaintzen balio duena”.

## ELKARTEA

Gainera, asturiar motako behien okelaren kalitateak ere oso azterketa zorrotzak izaten ditu. Behi gorri asturiarrak hazten dituzten ganaduzaleak Espainiako elkarte baten daude: ASEAVA. Asturiar arrazako behiak bakarrik onartzen ditu elkarteak, “pedigree” edo paperdunak, eta ez dituzte arrazen arteko inolako nahasketarik onartzen. Eta jakina, beste edozein labeletan moduan, hemen ere guztia zaintzen da: behiek jaten dutena...

Eskoriatzako Marin auzoan, Aretxabaletan, Oñatin eta baita Aramaion ere badaude ganaduzale gehiago elkarte horretan sartuta.

“Gipuzkoan hiruzpalau elkarte daude gure moduan,

Eusko Labeletik kanpo gaudenak; eta arrazoi bategatik edo besteagatik, ez digute sartzten uzten. Gu ez gaude horrekin ados, baina horrek ez du esan nahi gure okela eskasagoa denik”.

## KALTEA

Eta jakina, behi eroen “zoramenak” eragindako kaltea ere sumatu du Aitorrek. “Bai, jakina; horrek ez dio inori mesederik egiten; esango nuke mesede gehien gizarteari egiten diola eta gizartea konturatu behar da gertatzen denaz; jendea jabetu behar da janaria ez dela lantegi baten torlojuak egitea bezalakoa, ezin zaiola tratamendu bera eman, alegia. Gizarteak erreakzionatu egin behar du eta ardurak eskatu behar ditu”.

Horrelakoekin argi geratu da ganaduari ematen zaion jaki motak garrantzi handia duela: “Produktu onarekin hazitako ganadua izanez gero,

ez dago arazorik. Orain, arazoak sortu dira oso politika txarra dagoelako. Dena merkatu egin behar da; produkzioa etxalde handietan egiten da, masifikatu”...

Horren aurrean, Aitorrek baserriko kalitatearen alde egiten du, enpresa txikien alde, alegia: “Baserriko okelaren kalitatea onena da; prezio garestiagoa duen zalantzarik ez dago, baina era horretan hazten den okela da onenam, masifikatzen den guztiak arazoak ekartzen dituelako gero. Akaso, ezkutuak, baina noizbait agertu egingo direnak. Eta agertzen direnean, orain moduan, errua etxalde horietako nagusiei egozten zaie, baina nire ustez, politikan dago gakoa. Hirin horiek politikariek baimendutakoak izan dira, hortaz... Lehenengo probatu egiten da, eta ondoren ikusten dira kalteak”.

-----  
Ubane Madera

Eusko Labeldun okelak baino koipe gutxiago du eta horrexegatik ez dute onartzen. Nire ustez, hori ez litzateke horrela izan beharko; bereziki, kontsumitzaileak, erosteko orduan, ez duelako koiperik gura... Eusko Labelak dio koipe bariko okelak kalitate eskasagoa duela, eta gu ez gaude ados”.

## EZEZAGUNA

Bestela, geure artean ere, behi gorri asturiarren okela ez da oso ezaguna. Hemengo harategietan ez da askorik ikusten. Okelatarako saltzen denean, gainera, hemengo prezioa Asturiaskoa baino 100-150 pezeta merkeagoa izaten da; Asturiasen kiloa 750-800 pezetan saltzen da. “Oso noizbehinka agertzen denez, prezio altua ipiniz gero, hemen-





# Gazte ikastaroak

## Alboka

HASTAPEN ETA SAKONTZE MAILAK



- Egutegia: Otsailaren 3tik  
San Juanak arte
- Eguna: Larunbat goizetan
- 3 txanda: 10:00-11:00  
11:00-12:00  
12:00-13:00
- Lekua: Arrasate Musikalen
- Matrikula: 3.000 pezeta  
2.000 pezeta, ikasle eta  
langabeendako

## Txalapanta

HASTAPEN ETA SAKONTZE MAILAK



- Egutegia: Otsailaren 12tik  
maiatzaren 11ra
- Eguna: Astelehen (20:00-21:30)  
eta ostiraletan (20:00-22:00)
- Lekua: Musakolako Saloian
- Matrikula: 3.000 pezeta  
2.000 pezeta, ikasle eta  
langabeendako



## Etxeak egiten eta berritzen 20 urtean



**CANAS - ESTEBAN, S.L.**

ERAIKUNTZAK

Construcciones Canas Esteban enpresa orain dela 10 urte sortu zen Uribarri auzoan, baina Esteban eta Luis Canas anaiek 20 bat urte daramatzate lan horretan. Familia-empresa bezala sortu zen, baina dagoeneko 20 langile dituzte lanean eta 1993tik hona negozioa handituz doa. Izan ere, Uribarriko egoitzaz gain, Markuleten eta Erguinen biltegi bana dute. Markuleteko biltegiak 250 metro koadro ditu eta Erguinekoak, 200 bat. Uribarriko bulegoan, Uribarri Zeramikak-en egoitzan, Rosa Estrella ari da lanean. Bera egoten da bezeroekin: «Etxeak egin edo berritzen aritzen dira gure enpresan; axulei bat (lauza beiratzatua) jartzetik etxe osoa berritzeko beharrezko diren lanak egiten ditugu».

Etxe berriak egin eta zaharrak berritu. Horixe egiten dute Construcciones Canas Esteban enpresan. Eta Rosak azaldu digunez, «geroz eta gehiagok erabakitzen dute etxe zahar bat edo baserri bat

berritzea. Gainera, ohiko itxura gorde nahi izaten dute, eta horregatik, berritzen ditugun etxe askotan egurra eta harria erabiltzen ditugu». Baileraz gain, Aramaion ere egiten dute lan: «Araba aldean lan asko egin ditugu, baina nahia-goz izaten dugu bailaran aritzea». Mondragoen, esaterako, Ferrerías kaleko 24 eta 26. zenbakietako etxeak berritu dituzte enpresa horretako langileek, eta orain dela urte batzuk udaletxeko bulegoak egin zituzten.

Baina, zenbat diru behar da baserri bat berritzeko? Rosak adierazitakoaren arabera, «bi solairuko etxe bat berritzeko, lau bat logelarekin, 20-25 milioi pezeta, elektrikari, iturginen eta pintoreen lanaz gain».

Lehengaiak, adreiluak, teilak eta harriak inguruko enpresetan erosten dituzte: «Teilak Bergarako enpresa batean eta harriak, behar den harri motaren arabera, Mondragoeko harrobiei erosten dizkiegu».

## EMAKUMEON TXOKOA

### Etxeko lanak eta ardurak gizonezkoen eta emakumezkoen artean elkar trukatzeko tailerrak

Gizonezkoen eta emakumezkoen artean etxeko lanak eta ardurak banatzea dute helburu taller hauek.

- **Emakumezkoen tallerretan:** Elektrizitatea, iturgintza, brikolagea, pintura eta automobilen mekanika.
- **Gizonezkoen tallerretan:** Joskintza, lisatzea, sukaldaritza, garbiketa.
- **Izen-ematea:** Gazte Bulegoan, 943 77 00 65 telefonoan.

### Komunikaziorako eta harremanetarako baliabideak lantzeko ikastaroa

- **Nol:** urtarrilaren 25ean hasi eta apirilaren 5era, eguenero.
- **Lokua:** San Viator Ikastola
- **Emalea:** Pepa Bojo psikologo eta sexologoa.
- **Matrikula, doan.**

### Literatura edo irakurketa tailerra Monterronen

- **Hurrengo saloa:** urtarrilaren 22an, astelehena, 18:30ean, Monterronen.
- **Proposatutako liburua:** *Azukrea belazetan* (Iñaxi Mujika).
- **Zuzendaria:** Itziar Zubizarreta.

### Emakume kontseiluko logotipoa aukeratzeko lehiaketa

- **Saria:** 100.000 Pta
- **Epea:** urtarrilak 31
- **Oinarriak:** Udaleko Emakume Sailean.

### Emakume kontseiluko bilera

- **Nol:** Urtarrilaren 24an, eguaztena, 18:00etan.
  - **Non:** Udaletxean.
  - **Gala:** Martxoaren 8ko egitaraua osatzea
- Proposamenik izanez gero, animatu eta etorri; gonbidatuta zaude.

Informazio gehiago Arrasateko Udaleko Emakume Sailean; deitu 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonora. Gerturatu Arrasateko Udaletxera, herriko plazara. Helbide elektronikoa: [emakume@arrasate-mondragon.net](mailto:emakume@arrasate-mondragon.net)



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■





15-2

**B** ikain Akademiak 15 gol sartu zizkion Katxiporrari azkenengo jardunaldian. Bueno, izter horrekin ez genuen gutxiago espero!

## GOL UGARI

Seigarren jardunaldia jokatu zen joan den asteburuan Zaldibarren. Milurteko lehenen-

goa izan zen eta talde batzuek gogor hasi zuten. Gol asko sartu zituzten batzuek eta jipoi eder-rra jaso beste batzuek. Argaz-

kikoe 15-2 irabazi zuten, baina izan zen 18 gol sartu zituenik ere: Rayo Aldeano. Lasagabaster taldeak, berriz, 13



sartu zizkion Txeyenex taldeari. Horren harira, emaitzak eman genituen azkenengo aldian Lasagabasterrek 1-3 galdu zuela jarri genuen, Kanpanzar Harrobiaren aurka, baina alderantziz izan zen.

## EPAILEEN GANORA

Epaile lanak taldeetako jokalariek egiten dituzte, baina ez ei dute ganora handirik jartzen lan horretan. Baina, denok parte hartzen ez baduzue, Zaldibarko txapelketak etorkilaburra dauka, mutilak! Fenomeno pasatzen duzue eta!

# Kalitateak mugarik ez



## ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE



## Emaitzak

### A taldea

Chapime Dribling 2 - Goma 2 3  
 Serengeti 2 - You Know 2  
 AL Ion 2 - Serengeti 5  
 Betrayer 2 - AC Surkos 4  
 IKP 2 - Leya 0  
 Bikain 15 - Katxiporra 2  
 Txeyenex 3 - Lasagabaster 13  
 Kanp. Harrobia 5 - Aurrera Bolie 9  
 Komando Alp. 3 - Makanaki 3

### B taldea

Txotx 3 - New Makai 6  
 Iriztu 2 - Usotz Potroak 2  
 Irati STS 4 - AKTA 1  
 Sas T 4 - Alai Gozokiak 4  
 Etxerat Tab. 5 - KJ Basati 2  
 DKB Kobate 4 - Kamasutra 9  
 Abokajarro 4 - Pep.s.Inser.com 7  
 Usotz Potroak 9 - Alai Gozokiak 1  
 AT Celaya 7 - Full Duplex 5  
 Rayo Aldeano 18 - Txotx 1  
 EPEH 5 - Fraguol Gol 2

## Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Aurrera Bolie	6	6	0	0	37	10	12
Lasagabaster	6	4	1	1	36	19	9
Bikain Akademia	6	4	1	1	32	14	9
Komando Alpargat	6	4	1	1	32	22	9
Goma 2	6	3	2	1	30	18	8
Katxiporra	6	4	0	2	28	32	8
AC Surkos	6	4	0	2	24	21	8
Serengeti	6	3	2	1	23	19	8
IKP	6	4	0	2	23	25	8
YK Azkena	6	3	2	1	14	16	8
Chapime Dribling	6	3	1	2	25	18	7
Leya	6	1	2	3	10	14	4
Kanp. Harrobia	6	1	1	4	18	27	3
Makanaki	6	1	1	4	9	14	3
Betrayer	6	1	0	5	24	32	2
Txeyenex	6	1	0	5	12	31	2
AL Ion	6	0	0	6	9	47	0
The Pippol	6	0	0	6	7	17	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldi	Aurk.	Guzt.
Etxerat Taberna	6	6	0	0	52	13	12
Iriztu	6	5	1	0	22	11	11
Pep.Insero.com	6	5	0	1	29	17	10
Irati STS	6	4	1	1	29	13	9
KJ Basati	6	4	0	2	32	17	8
Kamasutra	6	4	0	2	28	16	8
AT Celaya	5	4	0	1	27	15	8
Usotz Potroak	5	3	1	1	27	6	7
Fraguel Gol	6	3	0	3	26	26	6
EPEH	6	3	0	3	18	23	6
Rayo Aldeano	6	2	1	3	37	25	5
AKTA	6	2	0	4	24	24	4
Full Duplex	5	2	0	3	16	24	4
DKB Kobate	6	1	1	4	18	30	3
Txotx	6	1	1	4	10	35	3
New Makai	5	1	0	4	9	32	2
Alai Gozokiak	5	0	1	4	10	33	1
Sas T	6	0	1	5	7	39	1
Abocajarro	5	0	0	5	13	36	0

**PARTIDA INTERESGARRIAK**  
 Bikain Akademia - Aurrera Bolie, Katxiporra - YK Azke-

na eta Komando Alpargat - Leya partidak proposatzen dizkizuegu zazpigarren jardunaldian. Lehenengoan bi talde

bikainek jokatuko dutelako eta beste bietan lagun arteko derbiak direlako eta horretan beti egoten da lehia gehiago.

## Hurrengo partidak / 7. jardunaldia

### Urtarrilak 20, zapatua

#### Zaldibar

09:50 Bikain Akademia - Aurrera Bolie  
 11:00 Rayo Aldeano - Kamasutra  
 12:00 Iriztu - AT Lokala  
 13:00 Txotx - AKTA  
 14:00 Katxiporra - YZ Azkena  
 15:00 DKB Kobate - Usotz Potroak  
 16:00 Betrayer - Makanakin  
 17:00 Iratia STS - Alai Gozokiak  
 18:00 Komando Alpargat - Leya  
 19:00 Goma 2 - Lasagabaster

#### Epailea

(Kamasutra)  
 (Aurrera Bolie)  
 (Rayo Aldeano)  
 (AT Celaya)  
 (Txotx)  
 (Katxiporra)  
 (Usotz Potroak)  
 (Betrayer)  
 (Irati STS)  
 (Leya)

#### Iturripe A

14:50 Txeyenex - AC Surkos  
 16:00 Fraguol Gol - KJ Basati

#### Epailea

(KJ Basati)  
 (AC Surkos)

#### Iturripe B

14:50 Kanpanzar Harro. - IKP  
 16:00 New Makanaki - Full Duplex

#### Epailea

(New Makanaki)  
 (Kanpanzar Har.)

### Urtarrilak 21, domeka

#### Zaldibar

10:50 Abocajarro - SAS T  
 12:00 Etxerat Tab. - Pepelus. Insero.com  
 13:00 Chapime Dribling - AL Ion

#### Epailea

(Etxerat)  
 (Abokajarro)  
 (Pepelus)

# Monte taberna

Maalako arrabala, 11  
 Tel.: 943 79 20 56



## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
 beirina eta kristalak  
 osagaiak

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## MADINA ZURAK

Aroztegia

Olak, aglomeratuak,  
 kontraxapatuak, tablexa, ateak,  
 egurrezko leihoak, oin-inguruak,  
 zangoak, aroztegiko osagarriak.

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78



## ERRUGBIA Bila ari zena



Aspalditik zebilen garaipen bila, eta azkenean, joan den asteburuan,

Arrasate Errugbi taldeak irabazi egin zuen. Getxoren aurka irabazi zuen eta horrek meritu bikoitza dauka; batetik, puntuak eskuratu zituztelako, eta bestetik, Getxoko taldea goi mailako jokalariek osatzen dutelako. Mondrago-etarrek aurrean ondo jokatu zuten eta 3. eta 4. lerroko jokalariek ere lan bikaina egin zuten. Horren ondorioa markagailuak erakutsi zuen partidaren amaieran: 23-0.


## SASKIBALOA Irabazten hasi



Kenci Arrasate taldeak irabazi egin zuen denboraldiko bigarren aldiko lehen partida. Zorrotzako kiroldegian jokatu zuen Siglo XXI taldearen aurka.

Bazekiten norgehiagoka ez zela erraza izango, baina Lander Errastiren taldeak tinko eutsi zion markagailuan hartutako aldeari. 64-81 gailendu zen talde mondragoetarra. Kontuan izan behar da, gainera, Iagoba Gamarrak eta Ander Mallabiabarrenak ezin izan zutela jokatu, min hartuta daude eta. Zapatuan Atletico de San Sebastian EHU taldearen aurka jokatu du Iturripen. Partida zaila izango da, izan ere, donostiarrak hurrengo denboraldian profesionaletan aritzeko asmoa du.

## ESKUBALOA Azkenean, garaipena



Arrasate Almen taldeak, alde txikiarekin bada ere, irabazi egin zuen joan den asteburuan Iturripen. Bernardo Balerdiren taldea aspaldi zebilen partida bat irabazi guran, eta azkenean lortu du. Donibaneren aurka jokatu zuen. Beste

batzuetan baino hobeto aritu ziren eta atsedendian bi goleko aldea zuten.

Bigarren zatian jokoa zakartu egin zen eta Donibanek partida berdindu zuen: 17-17. Azken txanpan, ordea, gogo biziz aritu ziren etxekoak eta berriro ere aurre hartu zuten. Azken emaitza 20-19 izan zen.

## FUTBOLA Etxean irabazi



2-1 irabazi zuen Mondrak joan den zapatuan Atxabalpen. Jon Muruak eta Unamunok sartu zizkieten golak Intxurre taldekoei. Partida hasi eta berehala aurreratu zen Mondra, eta lehen zatia amaitzear zegoela, alegiarrek berdinke-ta lortu zuten. Bigarren zatian, ordea, gogorrago jokatu zuten etxekoek eta entrenatzaileak aldaketa bat ere egin zuen: Xabiren ordezkari Muxi zelairatu zen. Mondragoetarrak 11. dira sailkapenean, 19 punturekin.

Intxa liderrak baino 13 puntu gutxiago dituzte. Aste honetan etxean jokatu du berriro ere, Euskalduna taldearen aurka oraingoan.

## XAKEA



San Andres xake taldeko laukote nagusiak 4-0 irabazi zuen Lazkaron. Orain, lehenengo da sailkapenean, baina Urnieta atzetik du eta talde horrek mondragoetarrak baino aurkari errazagoak ditu hemendik aurrera.

Bigarren taldeari dago-kionez, 2,5-1,5 galdu zuen Billabonaren aurka. Sailkapenean erdialdean daude eta, seguruenik, mailari eutsiko diote.

Aste honetan etxean arituko da lehen taldea, Hondarribiko Marlarxaren aurka. Partida zailak aurrez ikusten dira hondarribitarrek talde bikaina dute-eta, baina Josu Tornayk adierazi digunez, «aukerak baditugu».

## Emaitzak

### SASKIBALOA

- **Kadete neskek:** Andraitz 34 - 59 Kenci Arrasate
- **Kadete mutilak:** Kenci Arrasate 50 - 43 Santo Tomas Lizeoa "Lizaso"
- **Juniorrak:** Kenci Arrasate 75 - 44 Inter Intxaurren.
- **23 urte azpikoak:** Lazkao - Kenci Arrasate

### FUTBOLA

- **Lehen erregionala:** Mondra 2 - Intxurre 1

### Lehen gazteak:

- Orioko 0 - Mondra 2
- **2. gazteak:** Aldapetarrak 4 - Arrasate 2
- **Ohorezko gazteak:** Bergara 0 - Arrasate 0
- **Bigarren kadeteak:** Arrasate 0 - Aldapetarrak 2
- **Ohorezko infantilak:** Arrasate 3 - Baskonia 0
- **Lehen erregionala, neskek:** Mondra 2 - Elgoibar 3

### ESKUBALOA

- **Kadeteak:** Arrasate 14 - Elgoibar 19
- **Seniorrak:** Arrasate 20 - Donibane 19

### ERRUGBIA

- **Seniorrak:** Arrasate 23 - Getxo 0
- **Gazteak:** Arrasate Eibar 5 - Getxo 32
- **Kadeteak:** Arrasate 7 - Ordizia 0

### XAKEA

- **Lehen taldea:** Lazkao 0 - Arrasate A 4
- **Bigarren taldea:** Billabona 2,5 - Arrasate B 1,5

## Jokatzekoak

### FUTBOLA

- **Lehen erregionala:** Mondra - Euskalduna, zapatuan, 15:45ean
- **Ohorezko infantilak:** Arrasate - Lengokoak, domekan, 12:15ean

### ESKUBALOA

- **Gazteak:** Arrasate - Bergara, domekan, Iturripen, 11:30ean

### XAKEA

- **Lehen taldea:** Arrasate A - Hondarribia, zapatuan, 16:00etan, Al Andalus elkartearen

# UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943 79 83 96 / 943 79 23 00  
Faxa: 943 79 34 12



## Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erliebedun hizkiak

# TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu jostekak  
Fotokopiatu koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



# Judo txapelketa jokatu da asteburuan

Gipuzkoako judo txapelketa jokatu da asteburu honetan Mondragoen. Lau mondragoetar ere arituko dira lehian, hainbat mailatan. 17 urte azpikoetan bi mutilek jokatu dute, Carlos Rodriguezek eta Davik Arnaizek, hain zuzen. Bi neska ere arituko dira lehian: Leire Zabala eta Maddalen Aranegi. Leire 19 urte azpikoetan arituko da eta Maddalen, junior mailan.

Carlosek eta Davidek ez dute inoiz jokatu Gipuzkoako txapelketa; hortaz, aurtan estreinatuko dira. Carlos 60 kilo azpikoen artean jokatu du eta Davidek, 80 kilotik



Zapatuan goizez eta arratsaldez jokatu da txapelketa.

gorakoetan.

Leirek eta Maddalenek jokatu izan dute txapelketa hau aurreko urteetan. Gaine-

ra, Leire Gipuzkoako txapel-duna izan zen iaz, Errenterian, eta Maddalen, berriz, txapel-dunorde. Aurtan, Leire 63 kilo

azpikoen mailan lehiatuko da eta Maddalen 56 urte azpikoetan. Julio Gallegoren judo-kek, hortaz, badute esperientziarik horrelakoetan.

Gipuzkoako 40 bat judo elkartek parte hartuko dutelakoan daude, eta 200 judokatik gora.

Txapelketa bi zatitan jokatu da. Zapatu goizean hasiko dira probak, 10:00etan, eta 13:30era arte iraungo dute. Arratsaldean, osteran, 16:00etan helduko diote txapelketari. Proba guztiak Uarkapeko pilotalekuan jokatu dira. Ikuskizun bikaina izango da, dudarik gabe.

## Pilota txapelketa asko abian

Mondragoeko pilotariak burubelari dabilta txapelketaz txapelketa. Asteburuan Errasti eta Zuazubiskar Igorrera joango dira Euskal Herriko txapelketara. Joan den asteburuan sekulako partida jokatu zuten Elizondoko Baleztena eta Uharteren aurka. Ordubete pasatxoan ibili ziren jo eta su, baina 22-20 galdu zuten.

Bestalde, kadete eta gazteetako bina bikote eta nagusietako batek asteburuan hasiko dute Udaberri txapelketa.

Agirre eta Zuazua Hernanin arituko dira; Jimenez eta Arroiabe, Urnietan; Uribarren eta Domingez, Aizarnazabalen; eta Rodriguez eta Jimenez, Deban.

### EGUAZTENEAN ETXEAN

Deba arroko eskuz binakako txapelketa hasiko da eguaztenean, eta Uarkapen jokatu dute mondragoetarrek oñatiarren aurka. Bikoteak zeintzuk izango diren ez da oraindik erabaki, asteburuan egiten dute-naren zain.

### PROFESIONALAK

Urtarrilaren 27an profesionalen arteko pilota partida jokatu da Uarkapen. Asegarcek eta Arrasateko Udalak sinatutako akordioa tarteko, eskuz binakako txapelketako partida izango da. Aurrez aurre, pilotari bikainak: batetik, Unanue eta Patxi Ruiz, eta bestetik, Nagore eta Errandonea.

## Emaitza eskasak

Euskal Herriko atletismo txapelketa jokatu zen joan den asteburuan Anoetan. Hona hemen emaitzak:

### KADETEAK

Jurdana Ayala 10. (60 m)  
Ibai Irastorza 5. (600 m)  
Iñaki Viteri 5. (pisu jaurtiketa)

### JUNIORRAK

Angel Ribera 5. (60 m eta 200 m)  
David Blanco 6. (400 m)  
Oskar Gavilan 6. (pisu jaurtiketa)

### AZKOITIKO KROSA

Bestalde, Azkoitian krosa

jokatu zen domekan, eta mondragoeko lasterkariak ere han izan ziren. Alebinitan Markel Blanco aritu zen, eta 1.700 metroetako lasterketan hirugarren izan zen. Beteranotan Jabier Mentxak txapel-dunorde izan zen, 5.900 metroetako lasterketan. Maila berean, baina emakumezkotan, Mari Jose Gil seigarren izan zen. Honek 4.400 metroetako lasterketa korritu zuen.

Asteburu honetan, domekan, Juan Mugerza memoriale jokatu da Elgoibarren, eta Jabier Mentxak esan du han egongo dela.

**“PAL”**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

**URRATS**

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE



# Denok mendira

Arrasate Kirol Proiektuak, herriko kirol taldeekin duen harremana ez ezik, Besaide mendizale elkartearekin ere badu traturik: urtean zortzi mendi irteera egiten dituzte. 9-14 urte arteko neska-mutikoak joaten dira, hilero antolatzen diren mendi irteeretara. Aurten, Mikel Bergara arduratu da mendi irteerak antolatzeaz. Mendia oso gustuko du eta inguruko mendiak ondo ezagutzen ditu.

Ume txikiak, laugarren mailakoak, guraso edo anai-arreba zaharragoekin joan behar izaten dira mendi irteeretara, baina bestela, beharrezko neurriak hartu eta Mikelekin mendira. Eta zeintzuk diren gutxieneko neurriak? Hara: "Oinetako egokiak; hotz egiten badu, neguko jantziak, ura eta hamaiketakoa". Izan ere, negu partean lau bat orduko mendi bueltak egiten dituzte eta hamaiketakoa, hortaz,



autobusa goizeko 8:30ean aterako da Garibaitik.

mendian egiten dute.

Mikelek kontatu digunez, eskolaz kanpoko kirola egiten ere ibili zen umetan, eta AKPren filosofiaren gainean galdetu diogunean, ondo ikusten duela dio. "Egokia da umeek kirola egitea, hainbat kirol, ahal bada. Nik neuk, esaterako, mendizaletasuna txikitatik

daukat; futbolekin jokatzeara, ostera, ez du gustuko. Hala ere, mendiarekin gauza bitxia gertatzen da: umetan, gustuko duzu, 15-17 urte artean, alde batera uzten duzu, eta gero berriro ere hasten zara mendira joaten".

Urtero zortzi mendi irteera egiten dituzte eta, horrez

gain, ibilaldi arautua eta finalista eguna ere badituzte. Horiek, ordea, mendi federazioak antolatzen ditu.

Orain arte, mendi irteera hauek egin dira: Bergara-Irukurutzeta, Udana-Arantzazu eta Oleta-Urkiola. Zapatuan Arantzazutik Napar basoko puntara joango dira, Urbia ondora.

## Asteburuko hitzorduak

Urtarrilak 20, zapatua

### BENJAMINAK

Gazteluondon

- 09:30 SFX U - La Merced A  
SFX S T - Aramaio
- 10:15 Musakola - La Merced B  
SFX A - SFX E
- 11:00 SFX C - S. Viator A
- 11:45 SFX B - Erguin  
SFX D - S. Viator B

### ALEBINAK

#### NESKAK

Jturripen

- 10:15 SFX A - SFX U
- 11:00 Erguin - La Merced

### MUTILAK

Jturripen

- 11:45 La Merced - SFX U
- 12:30 Aramaio - S. Viator A

Musakolan

- 11:15 Erguin - Musakola
- 12:00 SFX B - SFX A 2
- 12:45 S. Viator B - SFX A 1

### INFANTILAK

### SASKIBALOIA

Autobusa Garibaien

#### NESKAK

Eskoriatzako Kiroldegian

- 10:00 Almen - S. Viator A
- 11:15 Torrebaso - S. Viator B

### MUTILAK

M. Lagundian

- 09:30 Aranzadi - S. Viator
- Zubikoa Kiroldegian
- 10:00 Aozaraza 1B - SFX
- 11:00 Aozaraza 1A - SFX

### FUTBOLA

Autobusa Garibaien

#### NESKAK

Atxabalpen

Arrasate - SFX

Jbarra, Atxabaltan

- 10:30 Kurtzebarri - La Merced

### MUTILAK

Jbarra, Atxabaltan

- 11:30 La Merced - Almen
- Musakolan

- 10:30 Aranzadi - Txantxi 1A - Bergaran
- 12:00 Txantxi 1B - Kurtzebarri

### RUGBYA

Garagartzan

- 10:00 Arrasate - Ordizi

### IRTEERA

8:30ean, Garibaitik

### BEHAREZKOA

Oinetako egokiak  
Neguko arropa  
Ura eta hamaiketakoa  
Lasai ibiltzeko gogoa

Urtarrilak 21, domeka

### ALEBINAK

### 7KO FUTBOLA

Atxabalpen

- 09:00 Erguin-S. Viator - SFX
- 09:00 Indo Mirvat - Txiki Onak
- 10:00 Canas Esteban - Joma



MARIKITA TAMBOURIN (ETNOLOGOA)

# «Historia liburuak dira deiturak»

**Baxenabartarra dugu Marikita Tambourin, baina mondragoetar batekin ezkontuta dago, Jose Manuel Pagoaga "Peixoto"rekin. Etnologoa da Marikita, eta euskal deituren inguruko ikerketak egin izan ditu. Kaleratu berri du *Euskal Deituren Kronikak* liburua, non Iparraldeko hainbat irratitan egindako saioak jasotzen dituen. Liburudendez gain, Biona eta Irati tabernetan salgai dago liburua.**



— Deituren ahoskeraren inguruko kezka agertzen duzu.

— Iparraldean jende gehienak frantsesez egiten du berba, eta euskal deiturak frantses ahoskeraz esaten dituzte. Horrek pena ematen zidan, eta jendeari euren deiturak nondik zetozen eta zelan ahoskatu behar ziren argitzeko egin nituen kronika hauek. Izan ere, zerbait zelan ahoskatu jakiteko, zer ahoskatzen duzun eta zer esan nahi duen jakin behar duzu.

— Badituzte euskal deiturek ezaugarri komunak Euskal Herri

**osoan?**

— Bai, eta are gehiago: aurkitu izan ditut, Euskal Herriko bi puntetan, erro beretik datozen hainbat deitura. Gainera, bitxikeriak ere topatu ditut. Adibidez, Iparraldeko hainbat deitura Hegoaldeko euskalkietako erroz osaturik daude, eta alderantziz.

Esaterako, hemen Urdinalde deitura dago, baina guk ez dugu urdin erabiltzen. Aurrenetxe deitura ere ez da iparraldeko euskalkiekin ulertzen, guk aitzin erabiltzen dugu eta. Eta alderantziz, hegoaldean gibel-erroden deiturak daude, eta gure euskalkian atze esan nahi du horrek. Gauza horiek pentsarazten didate sasoi batean euskarak batasun handiagoa zuela.

— Zer gehiago irakasten digute deiturek?

— Historia liburuak dira deiturak, edo hala irakur daitezke behintzat. Lehenengo baserriak sortu ziren garaiko berbak edo erroak agertzen dira deitura zaharretan, eta orduko izadia, zuhaitz motak, landaretza... zelakoak ziren jakin dezakegu. Era berean, antzinako lanbideen, lanabesen, eraikinen eta pertsona-izenen berri jaso dugu. Izen batzuk Erdi Arotik iritsi zaizkigu, etxe-izenen bidez: adibidez, Otxanda, Nafarroako emakume-izena. Beraz, lehenengo bizimodua zelakoa zen irakasten digute deiturek.

## «Antzinako lanbideen, lanabesen, eraikinen eta pertsona-izenen berri jaso dugu»

### Dermatologia kontsulta



Concepcion Tamayo Dk.  
Jesus Sampedro Madina Dk.

Maalako Errabala, 23/2-A • ARRASATE  
Tel.: 943 77 05 57

Atzeko Kalea, 6-behea • OÑATI  
Tel.: 943 71 61 82

#### ■ Azaleko Gaixotasunak

(Lagun-Aro, IQIMESA-Adeslas, Diputazioa, Asisa, Sanitas eta Ipresa aseguruak hartzen ditugu, eta baita partikularrak ere).

#### ■ Laser tratamenduak

##### • Fotodepilazioa

Medikuak kontrolatua.  
Ile normala eta hormona arazozen ondoriozkoa tratatzeko.

##### • Mantxa marroiak

Adinak eta eguzkiak eragindakoak.

#### ZUBIZARRETA LANTEGIAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

#### OSORIK PUB

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



## G. Mujikaren erakusketa



Gurutze Mujika margolariak erakusketa zabaldu berri du Iturriotz kaleko Harresi aretoan, otsailaren 4a arte. Paisajeak izango ditugu, batik bat, ikusgai: baserriak, basoak, abereak... nahiz eta, inoiz, bodegoirik edo erretraturik ere egin izan duen Gurutzek. Olio z margotu ohi du.

### NAHIAGO ZALETASUNEZ

Beasainen jaio eta Aretxabaletan bizi den artista honek lehenengo aldiz egin du erakusketa Mondragoen; aurretik, Bergaran eta Aretxabaletan egin izan ditu erakusketak. Gurutzek aisialdiko ekin-tza bezala lantzen du margogintza: «Ez zait interesatzen margolaritza ofizio bezala hartzea. Nahiago dut niretzako margotzea, gusturago aritzen naiz eta; beste norbaitendako jarduten duzunean, ez da gauza bera».

Lan handia dago margotzen hasi arte: argazki kamera hartu eta erretratatzeko paisaje bila ibiltzen da Gurutze.

## Herriko talde bat 'Gaztemaniak' en

Laugarren aldiz plazaratu du Foru Aldundiak *Gaztemaniak* diskoa, talde gipuzkoar berriak sustatzeko. Aurtengoan, Industria Dolor talde mondrogoetarren abesti bat agertzen da, *Ignorancia* izenekoa. Horrela, euren lana ezagutarazteko aukera izango dute; izan ere, *Gaztemaniak* diskoa salgai dago 500 pezetan, eta irratietara, hedabideetara eta disko etxeetara bidaliko du Foru Aldundiak. Gainera, talde horiendako kontzertuak antolatzen saiatuko da.

### IRITZI ONAK

Industria Dolor 1997an sortu zen eta ordutik hona bi maketa grabatu dituzte; gainera, oso kritika onak jaso dituzte. Foru



Jorge Agirre eta Rafa Ferreira, Industria Dolorrekoak.

Aldundiak dei egin zien *Gaztemaniak*-en parte hartzeko. Musika industrialia jorratzen dute Rafa Ferreirak, Francisco Izkuek -El Desvan del Macho taldeko partaide izanak- eta Jorge Agirrek. *Gaztemaniak*-

en agertzeaz gain, taldearen beste abesti bat Donostiako Gutural taldearen omenezko bilduma bikoitz batean entzun ahal izango da, eta laster hasiko dira hirugarren maketa grabatzen.

## RIP, agertokiak utzi ezinda

RIP punk talde arrasatearrak agertokien falta nabaritzen du oraindik, eta kontzertu bat eskainiko du otsailaren 17an, Hernaniko Oialuma aretoan. Sarrerak Irati tabernan izango dira salgai, 2.000 pezetan.

### ERANTZUN BIKAINA

Utzi Hernani Pakean taldeak antolatutako kontzertuan joko du RIPEk, La Polla, Txapel-punk eta Arriskua-rekin batera. Atxilotutako 39 hernaniarren fidantzari aurre egitea du helburu talde horrek, eta RIPEkoek bat egin dute ekimena-



rekin. Kontzertuetan jaso izan duten erantzun bikaina gehitu behar zaio horri. Hala ere, RIPEk ez du jotzen jarrai-

tzeko asmorik; izan ere, eta ez dute gura lehenengo abestien kontura kontzertuak ematen segitzea.

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

Sagardotegia Txotx egin!

**ITURRIETA**

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 55 85  
ARRAMAIO

**ARRASATE  
HOTELA**

Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16  
ARRASATE



# «Jakiteak ez du ogirik kentzen»

**Ba zenekien?** Egunero



Umeak bagina, ez genuke lotsarik izango "... eta zergatik?" galdera egiteko. Baina, barre egingo digutela pentsatuaz, kuriositate hori guretako gordetzen dugu. Aspal-diko esaera batek zera diosku: 'Jakiteak ez du ogirik kentzen'; eta asmo horrekin gelditzen da egunero gure autobusa 107.7-ko Bazenekien irratsaioaren geltokian.

## ZER IKASTEN DA?

Eguerdiro Ubanek bitxikeria bat dakarkigu; halaxe ikasi dugu, esaterako, txinatarrek ordenagailuan zelan idazten duten; piraten inguruko kontutxoak; Inuzente eguna ospatzeko arrazoia; nondik datozen eta zeintzuk diren maitagarriak...

## ERANTZUN BARIK

Galdera askori oraindik ez diegu erantzunik aurkitu. Entzule batek papilomak sortzeko arra-

zoiak galdegin zigun, eta naturistekin berba egiten jardun dugun arren, ez dugu erantzunik aurkitu. Eraildako Aita Santuez ere galdegin ziguten, eta ikertu ondoren, ez dugu oraindik zergatia jakin.

Irrintziaren jatorriaz ere jakin-mina sortu zigun beste entzule batek. Jakin-mina asetzeko, Lorentxo Altube mondragoetarrarekin egin genuen topo, eta irrintziaren zehaztasun handirik ez eman arren, eguaztenero euskal musika tresnen inguruko jakin-minak asetzen ditu.

## ZELAN ERANTZUN?

Galdera horien erantzuna baldin badakizu, edo bitxikeriaren bat proposatu nahi baduzu, egin bat gurekin posta elektronikoz, telefonoz edo gutun bidez.

**kontzertuak**

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO  
KONTZERTUETARAKO SARRERAK.  
Urtarrilak 27: **Halloween + Blaze**

Sarrera **1**

zozketatuko dugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

---

Izen-deiturak: .....

Tel.: .....

Bidali gurrera: Arrasate Press, Otalora 31  
edo deitu Arrasate Irratia: **943 71 17 31**.



## ASTELEHENA - EGUBAKOITZA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepasoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskalak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

## ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

## MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

## EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

## EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatzen.

## EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

## ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Proiektuak
- \* Instalazioak
- \* Argiztapena
- \* Automatismoak
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76





**K**alistroetan dago aterata aste honetan aukeratu dugun argazki zaharra, gutxi gorabehera, 1967. urtean. Oinarrizko batxilergoko hirugarren mailako neskatilak agertzen dira, zintxo-zintxo. Eskolako uniformeak dute jantzita, baina ikusten denez, batzuk, behintzat, zapatilekin daude;

gimnasia egiteko prest, hortaz.

Eserita daudenetik hasita, ezkerretik eskumara: Lucrecia Errasti, Arantza Agiriano, Maria Angeles Garzia, Espe Elkorbarrutia, Gemma Llodio, Blanka Etxebarria, Esti Balerdi, Rosi Ansuategi eta Bedoña Arrieta.

Hurrengo ilarakoak hauek dira: Arantza Lasaga, Lucia Arana, Marisol Lazkano, Maite Casado, Sor Teresa

Iregi, Marije Garmendia, Bego Zeziaga, Itziar Garai eta Begoña Velez de Mendizabal.

Eta azkenengo ilarakoak honakoak dira: Atxen Aguriondo, Maria Lui Zubizarreta, Maria Angeles Sandoval, Begoña Garcia, Maria Angeles Iñurritegi, Hirune Iribecampos, Maria Jose Balzategi, Edurne Balanzategi eta Lourdes Larrañaga.

Neskatila hauei urtebete besterik ez zitzaien falta eskola bukatzeko. Izan ere, garai hartan laugarren mailan bukatzen ziren eskolak Kalistroetan. Ondoren, kanpora joan behar izaten ziren batxilergoa ikasten jarraitzeko edo Idazkaritza ikasteko.

-----  
*Argazkia eta berriemailea:  
Hirune Iribecampos.*



**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa, z/g  
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn  
Araba etorbidea, 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86






lider **naturala**

Hona hemen Ford Mondeo Berria. Harrituko zaituen autoa. **Babeserako Sistema Adimentsu Esklusiboarekin.** Abian noiz jarri badakiten belaunaldi berriko 6 aire poltsarekin. ABSrekin. EBArekin. Egonkortasun Kontrol Sistemarekin. Eta askoz gehiago. Kanpo diseinu ausarta eta dotorea. Aluminiozko 16 vko motoreen belaunaldi berria, potentzia handiagokoak eta eraginkorrakoak. Gasolinan 170 cv ra artekoa eta 115 TDdin. Argibide gehiago eta froga [www.ford.es](http://www.ford.es) edo 902 442 442.

 **MUGARRI**

ford**mondeo** berria 

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE  
Tel.: 943 79 07 54 • [jefeventas@mugarri.es](mailto:jefeventas@mugarri.es)





**GRUPO**



**Amuebladora  
Mondragonesa**

**a eme Interiores**

Garibai 9. 943 79 15 03

**Centro Hogar Muebles**

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**Sofa Leku**

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 03

**a eme Sukaldeak**

Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92

**ARRASATE**

